



M8ko Adierazpen Instituzionala Pasaian, Emakumeen Nazioarteko Eguna dela eta

1952an martxoaren 8a Emakumearen Nazioarteko Eguna ezarri zuen Nazio Batuen Batzar Nagusiak (NBE). M8ak emakumeen "grebak" oroitzen ditu, historian zehar euren eskubide laboral, ekonomiko, politiko eta sozialak aldarrikatu dituztenak. Borrokek aldaketak ekarri dituzte legeetan, gizartean eta kulturaren, eta gizarteak berdintasun- eta demokrazia-maila handiagotarantz aurreratu dituzte.

Hala ere, emakumeen borrokan garaia ez da amaitu. Mundu osoan eta gure tokiko komunitateetan oraindik ere emakumeenganako bereizkeriak eta ezberdintasunak daude, emakume izate hutsagatik. Bereizkeria hori beste batzuekin gurutzatzen da: klasea, etnia, adina, kultura, sinesmenak, migrazio-estatusa, sexu-orientazioa, genero-identitatea edo gaitasunak, besteak beste.

Beijing Ekintza Plataformak 25 urte bete dituenean, belaunaldi berriak bat egiten du giza eskubideak defendatu eta genero-berdintasuna lortuko duten ekonomia, gizarte eta sistema politikoak irudikatzen borrokan, inor bazterrean utzi gabe. Munduko mugimendu honen ustez, generoen arteko berdintasuna ez da soilik oinarritzko giza eskubidea, baizik eta mundu baketsu, oparo eta iraunkorra lortzeko beharrezko oinarria. Eta hala jasotzen da Garapen Jasangarrirako Helburuetan. **Berdintasuna gizarte osoaren mezu bakar gisa aldarrikatzeko garaia da.**

Aitortu eta jasotzen ditugu emakumeen mugimenduek eginiko eskakizunak, euren borrokek eta kaleetako mobilizazioek erakundeoi **konpromiso** irmoko ariketa egitea eskatzen digute:

- Genero-harremanak eraldatzea gure udalerrien eta gure administrazioen bizitzan;
- Emakumeen aurkako indarkeria mota guztiak errotik kentzea eta egiturazko indarkeria horren biktimak erreparatzea;
- Baldintzak eta aukerak eraikitzea izaera guztietako emakumeek tokiko bizitzako ekonomian, gizartean, politikan eta kulturaren parte hartzeko;
- Diskriminazio mota guztien aurka borrokatzea;
- Bizitza erdigunean jarriko duten gizarte-antolakuntza erantzunkideak diseinatzea.

Tokiko euskal gobernuok konpromiso horiek gure herri eta hirietan egia bihurtzeko politikak diseinatu eta kudeatu behar ditugu, eta horrexegatik, Pasaia Udalak **konpromiso irmoa adierazi du berdintasunezko gizarte inklusiboa eraikitzen laguntzeko, pertsona guztien eskubideak eta parte-hartzea bermatuko dituen tokiko bizitzan, honako neurri hauek abian jarririk.**

Pasaia Udalak konpromiso hauek hartzen ditu jendarte berdinzaleago bat helburu:

1. Gobernantza alorrean:
 - Pasaia Udalaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako I. Planaren (2016-2020) eragina ebaluatzea eta aurrera urratsak zehaztea.



- Udaleko arau, programa eta zerbitzuen genero-eraginaren ebaluazioa garatzeko tresnak sortzea.
2. Balioak aldatzea eta emakumeen ahalduntzea:
 - Pasaia Emakumeentzako Jabetza Eskolaren ebaluazioa eta jarraipena, eta aurrera begirako urrats berrien ikerketa, hala nola: Emakumeen Etxea, eskaintza berriak...
 - Pasaia jatorri askotariko emakumeen saretzea indartzea, horretarako espazioak bermatuz.
 - Nerabe eta gazteen arteko tratu onak, nesken ahalduntzea eta maskulinitate ez hegemonikoak sustatzeko ekimenak sustatzea.
 3. Indarkeria matxista desagerraraztea:
 - Indarkeria matxistari buruzko herritarren informazioa eta sentsibilizazioa handitzea.
 - Indarkeria matxista pairatzen duten emakumeei kalitatezko arreta eskaintzea.
 - Indarkeria Matxista bizi duten emakumeen arretaren hobekuntzarako erakundeen arteko jarduera eta koordinazio protokoloaren sinadura, mahaiaren egonkortzea eta jarraipena egitea.
 - Sexu heziketa eta indarkeria matxistari buruzko hausnarketa bultzatzea nerabe eta gazteen artean.
 4. Emakumeen parte-hartze soziopolitikoaren sustatzea eta
 - Toki-mailan, emakumeen erakundeekin eta erakunde feministekin etengabe komunikatzeko espazioak indartzea, kasu, Pasaia Berdintasun Mahaia.
 - Udaletik abiarazten diren parte-hartze prozesuetan emakumeen parte hartzea ziurtatzeko tresnak martxan jartzea, bai jai eta ospakizunetan, bai hainbat Udal proiektutan...
 - Berdintasunaren aldeko eta Emakumeenganako Indarkeriaren aurkako Euskal Udalen Sarearekin – [Berdinsarea](#) – bat egiteko urratsak ematea.
 5. Bizitzaren iraukortasunaren aldeko ekinbideak indartzea:
 - Mendekotasun egoeran dauden pertsonen arreta bermatzea, orain arte bezala, udal zerbitzuak egokituz eta indartuz.
 - Zaintza lanen feminizazioaren aurrean, “Zainduz zaindu” zainzaileentzako asteroko gunearen jarraipena.

Azkenik, Udal honek herritarrei dei egiten die, Emakumeen Nazioarteko Egunaren kariatara Mugimendu Feministak martxoaren 8rako antolatu dituen mobilizazioetan era aktiboan parte har dezaten.

Pasaian, 2020ko otsailaren 20an